Argitaratze-data: 2022/12/12

# MEREZIMENDUEN EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA

**Epea**: 2022ko abenduaren 13tik 2023ko urtarrilaren 10era arte, biak barne.

Jarraitu beharreko pausuak:

1. **ESKABIDEA** bete (kidegoan sartzeko parte hartu nahi duzun espezialitate bakoitzeko eskabide bana). Izena emateko tasa ordaindu beharko duzu epe berean.

2. Aurkeztu online deialdiaren I. eranskinean aurreikusitako **MEREZIMENDUAK** egiaztagiriaren kopia (deialdiaren 3.3.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan soilik).

**Oharra**: merezimenduen egiaztagiriak eskabidea amaitu eta erregistratu ondoren soilik aurkeztu ahal izango dira.

## MEREZIMENDUAK

**SOILIK alegatu eta egiaztatu behar dituzu** ofizioz zenbatzen ez diren merezimenduak eta, ofizioz zenbatzeko modukoak izan arren, Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez daudenak.

**Non kontsultatu ditzaket dauzkadan merezimenduak EAEko Hezkuntza Saileko Langileen Erregsitroan jasota dauden?**

1.- Sartu https://hezigunea.euskadi.eus/

2.- Identifika zaitez «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza»

“Sarrera sinadura”



3.- Kontsulta ezazu







OHARRA: 2012tik deitutako **hautaketa prozeduretan oposizio-fasea gainditzearei** buruzko merezimenduari dagokionez, informazio hori Langileen Erregistroan jasota ez badago ere, ez da ziurtagiririk aurkeztu beharko hautaketa-prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitu baditu.

**Merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu behar baditut, nola egin behar dut?**

1.- Sartu:

https://hezigunea.euskadi.eus/

edo bestela,

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-lnagileak/ – «EPE2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua» – «Merezimenduak entregatzea»

2.- Identifika zaitez «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza»

“Sarrera sinadura”




3.- Klikatu «EPE2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua»



4.- Klikatu “Pincha “Entrega de méritos”




Merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzu, «**Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria. EPE2022**» frogagiriarekin batera; azken hau aplikazioan bertan lortuko duzu (Ikus hurrengo pantaila).

Dokumentazioa entregatuko da pdf formatuan eta entrega hori egiteko aurreikusitako aplikazio informatikoan zehazten diren jarraibideen arabera. GOGORATU klikatu behar duzula **“Amaitu dokumentazioa entregatzea eta erregistratzea”, jasota gera dadin.**

